

**ORTZAIZEKO
HERRIKO
ETXEA**
—
MAIRIE
D'OSSÈS

2025eko URTEKARIA



AURKIBIDEA

Aurrekondua - 2
Estado zibila - 5
Hirigintza - 6
Hilerria - 13
Eusko - 14
Elkarteak - 15
Soziala - 22
Eskolak - 25
Kultura - 28
Obrak - 30
Laborantza - 32
Garapen iraunkorra - 34
Nahas mahas - 35

AUZAPEZAREN HITZA

Helduden urte berriarentzat, nahi dauzkizuet helarazi zorion eta osagarri desira hoberenak, kontseiluko kide guzien izenean.

Bidean ziren ainitz proiektu gauzatu dira 2025 urtean: Zubi Alde zubiaren berritze lanak baldintza hoberenetan iragan dira emaitza eder batentzat, baita Arrosategia etxearen eta inguruen berrantolaketa.

Azpimarratzekoa da lan horiek burutu dituzten enpresen kalitatea!

Lurralde Koherentziaren Eskema (SCOT) dokumentua ere onartu da, jakinez lurraldearen berrorekatzea duela helburu nagusia.

Hego Baxenabarreko Elkargo Azpiko Tokiko Hirigintza Planari (PLUi) dagokionez, inkesta publikoa bukatu da eta bere behin betiko baieztatzea laster aurreikusten da. Horri esker, barnekaldeko 44 herriek lurralde antolamendurako dokumentua, eguneratua ukanen dugu.

Goi mailan botaiak diren keinu ezezkorrek ez bagaituzte ere laguntzen geroa baikorki ikusten, gure aldetik segitzen dugu bultzatzen obratze konkretuak.

Herritarren ongizatearentzat dugun engaiamendua, bai herrian eta bai hiri-elkargoan, osoa dela segurtatzen dugu.


Herri elkargoak bere lekua hartzen duen bezala, erraiten ahal dugu herriak ere nortasun haundiagoa erakusten duela dena irabazteko duen komunitate hortan.

Jinen diren proiektuek baieztatuko daukute!

Urte berri on deneri!


AURREKONDUA

FUNTZIONAMENDU GASTUAK



Kargu orokorra	647 967 €
Langileria kargua	341 700 €
Egunerokotasuneko beste karguak	155 500 €
Beste (finantza karguak, ez ohizko karguak, FNGIR berriz isurtzea)	49 054 €
Inbertsio sektoria buruzko transferentzia	1 481 450 €
Total	2 675 671 €


INBERTSIO GASTUAK




Arrosategiaren arraberritzea eta eremu publikoen sortzea	1 900 000 €
Eragiketa desberdin batzu (Herriko eraikinak, Ezker paretako argien aldatzea, Arbol landatzea, Web gunearen irisgarritasuna ...)	155 905 €
Zubi Aldeko zubiaren konpontzea	500 442 €
Bideak eta artzain bideak	153 000 €
Elektrifikazio obrak (Argi publikoen arraberritzea ...)	98 000 €
Maileguren kapitalaren itzultzea, bermea, karguen hedatzea	179 000 €
TOTAL	2 986 347 €

AURREKONDUA

FUNTZIONAMENDU DIRU-SARTZEAK



INBERTSIO DIRU-SARTZEAK



AURREKONDUA

FISKALITATEA

ZERGAK	HERRIKO TASAK 2024	ZERGA OINARRI AURREIKUSPENAK 2025	HERRIKO TASAK 2025	DIRU SARTZEAK
Eraikiaren gaineko lur-zerga	%30.32	922 900 €	%30.32	279 823 €
Eraikia ez denaren gaineko lur-zerga	%26.67	70 000 €	%26.67	18 669 €
Bigarren etxebizitzaren bizitegi zerga	%19	203 500 €	%19*	38 665 €
OROTARA				337 157 €

*Bigarren etxebizitzaren bizitegi zergaren tasa ez da berrikusia izan 2025ean. 2024ko urtarriletik goiti, herriko etxe hutsak bigarren bizitokiaren tasari lotuak dira (12 517 euro 2024an). 2025ean, herriko etxe hutsen zergaren emaitza 7 889 eurotan da.

ZORRAK

2025ean pagatuak: 86 756.01 € (79 912.85 € kapitala + 6 843.16 € interesak)
Zor den kapitala 2025/12/31n: 415 770.05 €


HERRIKO MAILEGUEN BERRI

MAILEGU MOTA	MAILEGUAREN HASTAPENA	HASTAPENEN KAPITALA	MAILEGUAREN BUKAERA	PAGATZEKO DEN KAPITALA (2025/12/31N)
Xerrenda lotizamenduaren lur eremua	2005/01/21	162 500 €	2025/01/10	0 €
Florentzenea	2006/03/10	500 000 €	2026/02/25	5 124.69 €
Florentzenea berria	2012/02/11	299 225 €	2037/03/01	160 645.30 €
Arrosategia	2021/06/30	400 000 €	2033/07/21	250 000.06 €

2025ean, Xerrenda lotizamenduaren mailegua aurten bukatu da. 2026ean, Florentzenearen mailegua bukatuko da.

Arrosategiko obren diruztatzeko, herriak beste mailegu bat egin du.

2026 urtean, mailegu guzien ordaintzeko, herriak 104 208.19 € pagatuko ditu.




SORTZEAK

DUBAYLE LAXAGUE Manea, Ioritz 2025/03/27a
CAMINO Aize 2025/04/14a
TEXIER LUCU Odei 2025/05/30a
FOURCADE Emilia 2025/07/02a
JAURIBERRY Esteban 2025/08/23a
LANDART Bixente 2025/08/24a
OXOTEGUY Elise 2025/11/15a

HERIOTZAK

ETCHEBES Marie, Louise, Monique 2025/01/20a
ALDAVE Jeanne 2025/02/03a
PETRISSANS Jean-Pierre 2025/08/04a
BERETERBIDE sortzez HARRONYO-GOYHENETCHE Marie, Catherine, Germaine 2025/06/03a
ELGART sortzez DAGUERRE Maria, Josefa 2025/07/01a
TRISTANT sortzez HUARTE Marie 2025/07/02a
MILLOT Gérard 2025/09/23a
FALXA Jean, Eugène 2025/10/11
ETCHEGARAY Pierre 2025/10/27a
TROUNDAY Pierre 2025/10/29a
URBIZU-ESTOMBA Amaia 2025/11/04a
MARRO-OURET sortzez FRANCHISTEGUY Marie 2025/11/08a
MEKERSA David 2025/12/18a
ALDAX sortzez CAMINONDO Isidora 2025/12/29a



EZKONTZAK

JAURIBERRY Henri eta ALFARO Isabelle 2025/03/15an
GALLO Laurent eta LASAGA Flavie 2025/06/28an
LARRALDE Olivier eta LINXE Cécile 2025/08/22an
ALZURI Mathias eta URRICARRIET Maider 2025/10/11n

DEMOGRAFIA



Herrian bizi diren jendeetan, 215ek 65 urte gainditzen dituzte eta 58ek, 80 urtez gora dute.

HIRIGINTZA

URBANISMO AGIRIAK

GALDEZAILA	PROIEKTUA
LAHIRIGOYEN Peio	Bastimendu baten arraberritzea etxe baten eraikitzeko.
IPOUTCHA Pierre	Bastimendu industrial bat edo biren eraikuntza
DRONDE Alain	7 eremuko lotizamendua
CELHABE Stéphane	Etxe berri baten eraikitzea

AURRE-DEKLARAZIOAK

GALDEZAILA	PROIEKTUA
ARTIGUEBIEILLE Philippe	Eraikitzeko helburua duen lur-zatiketa
SAUVAGE Arnaud	Etxe baten arraberritzea
TORO Victoire	Terraza baten eraikuntza eta idekiduren aldaketa
OÇAFRAIN Jeanne	Eraikitzeko lur-sail baten bereizketa
SCI ETXE BERRIA (IDIART)	Etxe baten arraberritzea eta isolatzea
TORO Angèle	Idekiduren aldaketa
BRISE Gérard	Igerileku baten eraikuntza
VIDEGAIN Dominique	Igerileku baten eraikuntza
HERLAX Antton	Igerileku baten eraikuntza
ALFARO Marie	3 leihoren ezartzea

ERAIKITZE BAIMENAK

GALDETZAILEA	PROIEKTUA
PERUSANSENA Elodie	Eraikin baten arraberritzea etxetako
HUGUET Mathieu	Borda bat artisau gune bilakatzea
SARL ARNABAR	Handitzea eta panel fotoboltaikoen pausatzea
LAFUENTE Andoni	Etxe berri baten eraikitzea
ARDUAIN Patrick et Diane	Etxe zahar batean 6 bizilekuren sortzea
JAUNARENA Jean-Paul	Etxe batean beste bizileku baten sortzea
DACHAGUER Peio	Etxe baten arraberritzea
Ortzaizeko herria	Arrosategia permisaren aldaketa
AMESTOY Aña	Etxe berri baten eraikitzea
EARL GAZTENA	Arditegiaren handitzea eta lastotegi baten eraikuntza
LAHIRIGOYEN Peio	Bastimendu baten arraberritzea etxe baten eraikitzeko
ALDABIA 2	Bastimendu baten eraikitzea

HEGO BAXENABARREKO ELKARGO AZPIKO TOKIKO HIRIGINTZA PLANA

2025. urtean zehar, elkargo azpiko THPa apailatzeko prozedura iritzi eta onarpen bilketa urratsean sartu da.

2025eko ekainaren 21eko deliberoaren bidez, Elkargoko Kontseiluak elkargo azpiko THParen proiektua finkatu du, proiektua eraikitzeko lanak bururatzuz.

Ondotik, elkargo azpiko THPa hunkituriko 44 herriei aurketu zaie ontzat eman dezaten, baita pertsona juridiko partaideek osatzen dituzten erakunde eta estatuaren zenbait zerbitzuei ere.

Delibero bidez, 44 herri guzietan proiektua onartu dutenez, dokumentua herritar guzietan aurkeztua izan zaie, haien iritzia ere biltzeko asmoz, 2025eko urriaren 27a eta abenduaren 1aren arteko ikerketa publikoaren bidez.

Ikerketa denboran, 3 pertsonak osatu duten ikerketa batzordeak 285 ohar bildu ditu, batzordekideek 9 zaintza-zerbitzu segurtatu dituztelarik herri hauetan: Aldude, Bidarra, Iholdi, Lartabale, Lekunberri, Baigorri eta Donazaharre.

Ortzaize herriari dagokionez, ikertu diren 20 punduetatik gehienak lur sailkatzeari lotuak ziren.

Batzordearen txostena eta emaitzak aurkeztean, Hego Baxenabarreko elkargo azpiko Tokiko Hirigintza Planaren proiektua onartuko da Elkargoko Kontseiluaren deliberoaren bidez, menturaz moldatu izan ondotik pertsona juridiko partaideen iritzia eta ikerketa batzordearen txostena eta emaitzak kontuan hartzeko gisan.

Bazterretako eremu mugatuaren proiektuak ere onartuko dira Elkargo Kontseiluaren deliberoaren bidez, menturaz moldatuak izan ondotik ikerketa batzordearen txostena kontuan hartzeko gisan, Frantziako Eraikinen Arkitektoa erakundeak ados agertu ondotik. Azkenik, proiektu horiek sortuko dira Eskualdeko prefetaren erabakien bidez.

Herrietako mapak indargabetuak izanen dira elkargo azpiko THPa onartuko duen Elkargoko Kontseiluan.

Helburua laike elkargo azpiko THPa onartzea 2026ko otsaileko Elkargoko Kontseiluan.



Ipar Euskal Herriko eta Seinautzeko LuKE-a onartua da!


Sei urtetik gorako lan kolektiboaren ondotik, Batzorde Sindikala bildu da 2025eko abenduaren 11n Ipar Euskal Herriko eta Seinautzeko LuKE (Lurralde Koherentziaren Eskema - Schéma de Cohérence Territoriale) onartzearen bozkatzeko.

Proiektu honek hautetsien anbizioak agerian uzten ditu: lurralde bat eraiki, interes orokorra eta kohesio soziala erabaki guztietan integratuz, eta gure ingurumena zainduz. LuKE-ak lurraldearen garapena orekatzeko modu berri bat proposatzen du: herri eta hirien bizitasuna indartzea, giza izarikoko hiri-forma trinkoak lehenetsiz, gure erdigune eta herrixka historikoetan inspiratuak, ingurumena errespetatuz eta babestuz. Dena aise eskura daitekeen hiri eta herri animatuak, bizitzeko atseginak, ekonomia dinamika baten alde dira.

Orotara ehun baino gehiagoko bilkurek, tailer eta topaketa publikoak ahots guztien entzutea eta ideiak, ekintza konkretu bilakatzea ahalbidetu dituzte. Parte-hartze prozesu honek tokiko aktore guztiak mobilizatu ditu, lurraldearen kohesioa indartuz eta proiektuan kide-hartzea bermatuz.

Ipar Euskal Herriko eta Seinautzeko LuKE-a ez da dokumentu bat bakarrik: lurralde bizi, harmoniatsua eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko prest den ikuspegi partekatua da. Onarpena, LuKE-a aplikatu aurreko azken urratsa zen. Estatuak, bi hilabete iraungo duen legezketasun kontrola egiten ari da LuKEari buruz. Estatuak aldaketa galderik ez badu, LuKE-a gauzatzen ahalko da eta bere lurraldeko 166 herrietan aplikatuko da.

Funtsezko urratsa da gure lurraldearentzat! LuKE-a gauzatuko delarik, lurraldeak bide orri bat ukanen du bere esku, etorkizuneko plangintza dokumentuentzat bai eta Ipar Euskal Herriko eta Seinautzeko lurraldearen garatzeko eta antolatzeko orientabide multzo bat. Onartua izan den LuKE-a webgunean eskuragarri da: <https://www.scot-pbs.fr/>



PNR: ESKUALDEKO PARKE NATURALAK

2024-2025: Bi urteko lan kolektiboa mendien etorkizunaz gogoetatzeko.

50 baino gehiago: hori da, Euskal Mendia Eskualdeko Parke Naturalaren Xarta kolektiboki plantan emaitzeko behar izan den bilkura kopurua (tailer, bilkura tekniko, politiko eta herritarrak).

Desmartzaren buru diren hautetsiek, 2025eko abenduan onartu zuten Xartaren lehen bertsio honek, eskualdearen (hautetsiak, herritarrak, profesionalak, elkarteak, teknikariak, etab.) mobilizazio osoa adierazten du, heldu diren 15 urteendako, Euskal Mendiarendako nahi den etorkizuna elgarrekin eraikitzeko.

Xartak, edo Euskal Mendiko proiektu kolektiboak, tokian bizi eta lan egiten duten emazte eta gizonen eguneroko biziaren (herrien dinamismoa, kultura bizia, gizarte-kohesioa eta bizitasun ekonomikoa) eta ingurumenaren (biodibertsitate aberatsa baina hauskorra, paisaia idekiak eta ongi zainduak, bizitzeko ingurune pribilegiatua, etab.) arteko lotura hertsia azpimarratzen du. Jendearen, Naturaren eta Kulturaren triptiko gisa presentatzen da, eta hau da bere ezaugarri nagusia.

Horregatik, Eskualdeko Parke Naturalak (EPN), bere Xartaren bidez, hau du helburu:

1.ardatza: Euskal Mendiaren paisaia-mosaikoa bermatzen duten aktibitate nagusiak (laborantza, oihangintza, ihizia) zaintzea eta transmititzea.

2.ardatza: Ekosistemak eta baliabide naturalak zaintzea, bereziki jendeen aktibitateek moldatuak.

3.ardatza: Euskal Mendiaren herrien bizitasun ekonomiko eta kulturala indartzea.

4.ardatza: Komunitatea eta bizikidetzaren sustatzen jarraitzea, auzoekin lankidetzan, Euskal Mendiaren etorkizuna bermatzeko.

Ondoko urratsak:

Xartak, sailkapen-prozesuan zehar, iritzi desberdinak ezagutuko ditu (eskualdekoak, estatukoak, etab.) eta alda daiteke. Ondotik, Euskal Mendiko 111 Herriko kontseiluek, Ortzaze barne, librokiko deliberatuko dute kide izan diren Euskal Mendiaren Xartari 2028an (behin-behineko egutegia).



Ur-inguruneen kudeaketa eta uholde-arriskuen prebentzioa eskumenaren baitan (GEMAPI), Euskal Hirigune Elkargoak Uholdeak aurreikusteko Ekintza Programak (PAPI) gauzatu dituztenak, ontasunak eta pertsonak babestera bideratutako ekintza aintz hartzen dituztenak. Errobi ibaiaren inguruko 54 herrietako bat gira, eta denak elkarlanean ari dira ekimen huntan.

Errobi PAPI programari esker, Euskal Hirigune Elkargoak uholde-arriskuaren ezagutza garatzeko lanean segitzen du, arrisku-mapa berriak eginez, krisiaren aurreikuspena eta kudeaketa hobetuz, 2026an Laka errekan zunda berri bat instalatuz; edo ontasunen eta pertsonen ahultasuna murrizteko helburua duten akzioak plantan emanez. Adibide gisa, landaretzaren mantentze eta berriz apailatze obra bateratuak aipatzen ahal ditugu; horien barne dira, hilabete huntan Gaharduko zubiaren azpiko



landaretza tratatzeko eginik izan diren lanak. Badu bi urte baino gehiago orai, Euskal Hiriguneak, herriko etxeekin lankidetzan, lurraldeko erabiltzaileekin kontsulta-bilkurak antolatzen dituela, tokiko arazoei egokitutako programa anbiziotsu horiek hedatzeko. Horren harira, 2025eko azaroaren 13an biltzar publikoa antolatu zen Denen Etxean, PAPI programaren edukia erabiltzaileei azaltzeko eta tokiko beharren inguruan trukatzeko. Bilkura horren ondotik, bigarren elgarretaratze pertsonalizatuago bat egingen da, ibai bazterreko herritarrei diagnostiko indibidualak proposatzeko, bastimenduen ahultasuna murrizteko.

ARROSATEGIA

Plazer haundi batekin jakinarazten dautzuegu Arrosategia etxearen berritze lanak eta inguruetakoa obrak bururatuak direla.

Bereziki biziki harro izaiten ahal gira hautatu ginuen arkitekto taldeaz, Gauche kabinetean, nahi ginuena konduhan hartuz, proposamen egokiak egin baitauzkigute eta obrak seriozki segitu baitituzte hitzeman epeak errespetatuz.

Hautatu ditugun enpresak ere harro izaiten ahal dira egin duten lanaz, lan ona egin baitute eta aldi oro behar zen orduko.

Proiektu xoragarri hori pentsatua izan zen herritar guziena zerbitzuko, bainan bereziki segurtasun problematika bati ere erantzuteko, eta ondotik denentzat bizi leku goxo baten sortzeko.

Herriko etxearen alda jadanik egin baldin bada ere, herriko posta agentzia urtarril hondarrean hurbilduko da lekura eta lehen solairuko gelak okupatuko dituzten medikuntza arloko profesionalak beren erritmoan instalatuko dira. Osteopata eta erizainek behar lukete instalatu hor eta berantxago emaztea eta haurraren inguruko proiektu batek ere sortu behar luke.

Badakigu denen usaiak aldatu beharko direla, bereziki inguruko bi eskoletako burasoenak, posta agentzia edo herriko etxera hurbiltzen direnenak, bainan kuadro eta kalitatezko espazio berri horri fite jarriko da jendea.

Plaza berriko lehen pilota partidek primaderan izan behar lukete eta Frantziako txapelketako lehen finalak hor jokatu dira, agorriko euskal kirolen aste nagusia kari.

Proiektu guzia bururatzeko eskas izanen dena da, auto elektrikoan kargatzeko gunea bakarrik.

Diruztatze plana definitiboa izanen delarik urte hastapenean erakutsia izanen zaizue.

Eremu berri horren estreina, egunak luzatuko direnean eginen da, martxoko bozetatik landa.



HILERRIA

BIDEAN DIREN OBRAK

Hilerriko hezurtegia uda huntan instalatua izan da zati berrian, 29. gunean eta gisa hortan Herriko etxeak bereganatu dituen hobi ez erabilien hustea hasi da. Hondar guziak errespetu handienarekin hezurtegian emanak dira. 2026an, huste horien egiten segituko dugu eta leku zenbaitetan hobi berri batzuk instalatuko ditugu nahianter hauen proposatzeko gisan.



Gogoeta bat eramaiten ari gira oroitza pen baratze baten sortzeko (hautsen botatzeko) eta leku gehiagoren gehitzeko jadanik hor den kolunbarioan.

Hilerrri zaharrean ibiltzea errexteko, hasi gira gaizki plazatuak diren hobi batzuen mugitzen eta trabagarri diren monumentu ttipi batzuen kentzen (kurutze bakarrak, etab.) bai eta ere landare trabagarri batzuen.



ZUBIALDEKO ZUBIAREN ARRABERRITZEA

Zubi hunen arraberritzea ez zen hastapenean pentsatuak ziren herriko proiektuen barne baina ohartu baina behartuak izan gira lanjerra ikusiz. Pikoan ez zen zubi hunen obren berehala egitea beharrezkoa zen.

CEREMAREN diagnostikoaren ondotik, estudio guziak egin eta, enpresak eta diruztatzea trenkatu bezain fite, obrak aipatu egutegia segituz gauzatu dira. Bukaerako lana nahi bezalakoa da.

Orain, herriak zubi berri bat du eta pizu mugak kendu dira bai eta zirkulazioa ere normalera itzuli. Eskertu nahi ginituzke zubi horren arraberritzea ahalbidetu duten guziak eta eskertu ere obra horiek traba dituzten herritar guziak beren pazientziagatik.



LEKUKO EKONOMIA, EUSKARA ETA LABORANTZA HERRIKOIA INDARTU.

Euskoa, Euskal Herriko tokiko moneta, barnekaldean garatzen ari da. Bere helburua sinplea da: balio ekonomikoa lurraldean finkatzea, erosketak birkokatzea, tokiko komertzioak eta laborariak sostengatzea, eta praktika iraunkorrek bultzatzea.

Ortzaizen, hainbat eragilek erabiltzen dute jadanik: saltegiak, ofizialeak, elkarteak... baita laborari eta hurbileko laborantzarekin engeiatuak diren ekoizleak ere. Euskotan ordainduz, bakoitzak laguntzen du herri bizitzarako funtsezkoak diren aktibitate horiek indartzen.

Bestalde, Euskoak euskararen ikusgarritasuna indartzen du, saltokietan afitxaketa elebiduna lagunduz eta egunerokoan euskararen erabilera sustatuz. Hizkuntza egunerokoan, dendetan eta merkatuetan biziartzeko modu eraginkor bat.

Ortzaizeko Herriko etxea ere kide da. Dinamikarekin bat egiteko, www.euskalmoneta.org webgunean edo aldagune batean egin daiteke sinpleki. Eusko erabiltzaile bilakatzea, tokiko elkarteak laguntzen ditu, % 3ko dohaintza sistemari esker: kidezerakoan, bakoitzak nahi duen elkarte hautatzen du eta honek bere babesleek aldatutako euroen %3a eskuratzen du. 2025ean, sistema solidario horri esker, 80.000 eusko banatu dira 60 elkarte ingururen artean. Sortu denetik gisa hortan 470 000 eusko banatuak izan zaizkie lekuko 70 elkarteri.

Urratsez urrats, Euskoa lurraldean garatzen ari da. Ordainketa sistema soil bat baino gehiago, lurralde ekologiko, euskaldun eta solidarioago baten zerbitzura dagoen proiektua da Euskoa.

Eusko sarean dira:

-Elkarteak: Ikastola, Ortzaizeko gazteria, Urzaiz

-Profesionaletan: Murgia eta Gaztena etxaldeak, Menta Liburutegia, Hatsa Sport, Astigarage, Don Quichosse, Goicoechea Poteria, Laia, Asteburua, Vins de Vincent, Kaiku Borda eta Aldabia.

EUSKOA ZENBAKITAN



“ELKARTEAK” LAN TALDEAREN HITZA

- **Eskerrak:**

2025 urtea ere animatua izan da herrian, lekuko elkarten dinamismo handiari esker. Dugun eskaintza aberatsa bezain anitza da. Herriko etxea horretaz pozten da eta liburuxka hunen bidez nahi genituzke beren denbora emaiten duten pertsona guziak eskertu baitakigu bakotxaren inplikazioari esker dela herria gisa hortan bizi arazten ahal. Badugu esperantza hasi berri den urte hunek ere itxura bera izanen duela, proposamen frangorekin, nornahik bere plazerra atxemaiteko gisan. Milesker deneri.

- **2025 urteko diru-laguntza banaketak**

Urtero, elkarteek diru-laguntzak galdegiten ahal dizkiote Herriko etxeari, dituzten proiektuen gauzatzen laguntzeko. 2025ean, galde guziak azertuak izan dira lan-taldean eta laguntzen banaketa bozkatua izan da apirilaren 1eko kontseiluan. Xehetasunetan sartu gabe, hona nola banatuak izan diren aurten ixuri diren **31 575,00** euroak:

- Herriko elkarteak: 19 000€
- Kanpoko elkarteak: 7 200€
- Kirol elkarteak: 3 325 € (25 € lizentzia bakotx)
- Kolegioei laguntza: 2 050€ (50 € kolegioan den ortzaiztar bakotx).

Oroitarazten diegu elkarteei diru-laguntza eskaera guziak herriko etxera helarazi behar direla berantenez 2026ko otsailaren 28ko. Txostena eskura dezakezue QRkode hau erabiliz.



- **Arranoak**

Gure herriko taldeak zango-baloi txapelketan parte hartzeko, departamenduko ligak behartzen gaitu federazioko araudiaren betetzera. Taldeak gaur dituen aldagelak ez baitira arau horier segi, eta bereziki zelaitik urrunegi baitira, herriko kontseilua aterabide baten bila dabil.

Euskal Herriko EPFL egiturari dei egin diogu beraz, inguruetakoko zelaien jabeekin solasak hasteko. Esperantza dugu negoziatio horiek molde hobereanean iraganen direla, Arranoak taldearen biziraupena baita hor jokoan.

Segurtatu nahi diegu Arranoak taldeko kudeatzaileeri eta jokalarieri nahikeria dugula denen interesetan den aterabide bat atxemaitea eta egin ahal guziak eginen ditugula proiektu horren gauzatzeko.

- **Garbi**

Aurten, Herriko etxeak bultzaturik, elgarrizketek segitu dute Garbi elkartearekin. Ez baldin bagira nahi bezainbat aitzinatu ere, erraiten ahal dugu halere, printzipiozko akordio batetara heldu girela galdegiten ginuen epe luzeko alokatze bati buruz. Gisa horretan arraberritu nahi ginituzken zatiak litezke Etxebertzea etxea, zinema gela, komunak eta aitzineko korlea.

Herriko etxean iragan den bilkura izpiritu positibo batean iragan da. Juridikoki untsa josia den proposamen batera nahi ginuke heldu ahal bezain fite.

BESTA KOMITEA

Aurten ere, iaz izan zuen arrakastaren ondotik, burger gaua berriz antolatua izan da.

Ortzaizeko gazteek prestatu burger-ak etxez etxe banatuak izan zauzkizue zuen plazerrarendako. Ekitaldi honek elkar biltzeko beste parada bat ematen digu.



Bigarren aldikotz, Ahaize Mendiko gauean musika taldeak ezin izan du jo teknika-zailtasunen gatik. Hala ere, Ortzaiztarrek parte hartu duzue eta horrentzat eskertu nahi zaituztegu. Herriko bestek ere arrakasta handia ukan dute! Asteburuan zehar herritarrak eta kanpokoak bildu ziren Ortzaizeko plaza biziartzeko, giro onean.

Usaiako igandeko pintxo egunean, eguraldi txarra izan zen, eta horrek ez gaitu lagundu. Hala ere, nunbrean etorri zirezte. Milesker handi bat!

2026an, bestak Ortzaizeko plaza berrian iraganen dira. Denak elgarrekin elkartuko gira plaza berri horren ospatzeko !

ARRANOAK



Jaz, denboraldi biziki ona egin dugu D2 mailan (departamenduko 2. maila), eta 3. postuan bukatu dugu. Batzuentzat sorpresa iruditzen bazen ere, guretzat ez zen ustegabea, hasieratik finkatutako helburu baten betetzea baizik. Urtero bezala, denen errespetuan, lan serioan eta giro onean aritu gira, eta emaitzak horren ispilu dira.

Aurtengo denboraldirako, 37 lizentziatu gira jokalaria eta laguntzaileen artean. 10 bat jokalaria berri batu dira taldera, gure indarrak handituz eta lehia baikorra ekarriz.

Eskerrik beroenak laguntza ekartzen diguten enpresa guztiei, baita zuen etxeetan egutegi hau hartzen eta diruz laguntzen gaituzten guztiei ere. Diru sarrera horiek funtsezkoak dira gure elkartearentzat, eta zuek gabe talde honek ez luke aintzinerara jarraituko.

Aurten ere, gero eta zale gehiago bildu dira Uxara inguruan taldeari sustengua ematera. Milesker bihotzez zuen konfiantzagatik eta animoengatik !

Ez dudatu igandetan Uxarako zelaira hurbiltzea: futbol partida eder batez gozatzeko, edo bertako giroa partekatzeko.

ARROSA-ORTZAIZEKO BETERANOAK

Ahantziei omenaldia: Azaroaren 11: armistizioaren oroitzapena, I. Mundu Gerrari amaiera emanez.

1914az geroztik Frantziaren alde hildako guztiak agurtzeko ere hartu dute data hori. Oroitzekoa: 1.500.000 hil 1914tik 1918ra, 560.000 1939tik 1945era, 84.000 Indotxinan, 25.000 Ipar Afrikan, 600 Kanpo Operazioetan (Libano, Kosovo, Bosnia, Irak, Afganistan, Txad, Mali...).

Urteak dira, Paueko gudalburua, gudalosteen zerbitzu historikoaren laguntzarekin, gutti edo gaizki, edo batere ez, aipatzen zirenei omenaldiak egiten nizkien, baina elkarte edo familiak borrokatzen ziren haien alde. "Ahantziak" ezagutzea zen helburua, haien historia edo zortea tragikoa izan zelarik: 1916-1917an eredutzat fusilatuak, "Malgré nous" delakoak (alsaziarrak eta mosellanarrak, 1940tik Alemaniako armadan indarrez sartuak), Afrikako, Asiako eta Ultramarinoko borrokalariak ("tiratzaile" hitzarekin), Indotxinako ordezkioak (bereziki Meos/Hmuongs), harkiak eta haien familiak. Besteak beste...

Joan den azaroaren 11n, omenaldi nazional bat egin zitzaizen "Malgré nous" delakoeri (135.000 "gehituak", 30.000 berreskuratuak), aspaldiko borroka baten gauzatzea. Behereko argazkian, Alsazian, haien oroimenaren monumentua agertzen da.

Bouquet koronela



ELKARTEEN HITZA

GARBI

Garbi elkarte, Ortzazeko elkarte zaharrenetatik bat da, 1955ean Irigoyen apezak sortu zuena. Bastimendu desberdinak kordatzen ditu : Etchebestia edo Seroren Etxea, Jondoni Mixel eskola, zinema gela baita ere Ezker Pareta.

Aurten ere herriko elkarte batzuei, herriko jendeari eta kanpoko parte hartzailei beren gelak eta Ezker Pareta erabiltzeko okasioa eman dugu.

Zonbait animazio antolatu ditugu gure funtzionamendu gastuen pagatzeko: matahamien eta bixkotxen salmentak, eta berriki Tajine salmenta bat, arrakasta eder bat ukan duena.

Ortzaiztar guziak 2026-eko animazioetan parte hartzea gomitatzen ditugu eta aitzinetik milesker zuen sostenguagatik!

Bestalde, proiektu zehatz baten beha gira, Herriko Etxearen alokatze enfiteotiko proposamenari buruz. Etxebertzea etxea eta

zinema gela dira proiektu horren ardatza. Proiektu horrek, denen interesako aterabide ona ukanen duela esperantza dugu.



XARBOTA

2025ean elkarte berri bat sortu da herrian: Xarbota elkarte. Hau da, Menta liburu dendaren inguruan sortu den elkarte, Ortzaize eta auzo herrietako kideak batuz. Helburutzat du ekitaldiak antolatzea Menta liburu dendarekin loturan: liburu, filma edo disko aurkezpenak bezala.

Aurten antolatu diren ekitaldiak:

- maiatzaren 16an, Pelax-en disko aurkezpena
- irailaren 19an, Karma taldearen disko aurkezpena
- joan den azaroaren 14ean, Beñat Iturrioren Enarak filma aurkeztua izan da.

Bere eginkizunetan ere bada Charlotte-i eskukaldi baten ekartzea, berak antolatu momentuetan, adibidez Mentaren urtebetetzearen kariatara.

Elkarte berria izanez, oraindik gogoetan bagabiltza zein ekitaldi antolatu gerora edo nola lan egin, batez ere hausnarketa espazioak sortu nahi ditugu gai eman batzuen inguruan. Bere bidea segituko du elkarteak 2026an.



Interesaturik baldin bada parte-hartzeko elkartean, ez dudatu gurekin harremanetan sartzea.

Kontaktua: xarbota@ik.me

URZAIZ ELKARTEA

2025. urtea, urte ederra izan da Urzaiz elkartearentzat. Izan ere, elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ahal izan ditu : dantza kurtsoak, kulturaldia, kontzertuak, antzerkia etab.

> Euskaraldia

Euskal Herri osoan zabaldua den Euskaraldian parte hartu dugu, maiatzaren 15ean hitzordua emanaz Asteburua ostatuan. 30 bat pertsona hurbildu dira Urzaizek antolatutako kantu eta pintxo gaualdira. Gaualdia, giro goxoan iragan da.



> KULTURALDIA

Elkartea bere hirugarren kulturaldiaren inguruan ibili da lanean, edizio hunen berrikuntza edo aldaketa nagusiarekin: urri osoan zehar hainbat ekitaldiren aurkezteko hautua egin dugula.

Aitzineko urteetan, ekaineko asteburu bakar batez iragaiten zen kulturaldia.

Aurtengoan, aldiz, urri osoan zehar, hainbat partaideen laguntzarekin :

- Menta Liburudendan hitzordu andana bat eskainiak izan dira: Urriaren 1ean asteazkenarekin, Asier Gogortzaren argazki liburu presentaketa ; Urriaren 3an, Maria Oses eta Idoia Asurmendi musikari/kantarien Munstroen bila olerki musikatua; Urriaren 21ean hurrei zuzendutako bi filma proiektatu dira ; Azken hitzordua urriaren 23an, Myriam Aycaguer *Ni nūzu* soinu dokumentalaren egilearekin.

- Etxeko Borda ostatuan elkartu gira aurtengo bertso afariarentzat, hau, urriaren 10ean.

Han, Patxi Iriarten eta Andoni Egañaren bertso mamitsuekin loriaturik egon gira.

- Azken bi ekitaldiak, Goikoetxea poterian antolatu dira : Urriaren 11an, Harituz festibalaren kariatara, Atx teatroaren Marmarra antzerkia ikusi ahal izan dugu ; Biharamunean, iparraldeko hainbat emazte artistei ongi etorria egin dugu, hala nola Amaren Alabak taldeari baita Habia taldeari ere bai, 200 bat pertsonak emazte hauen boz xoragarriak entzun ahal izan dituzte.

> **Haurren dantza kurtsoak:**

Aurten ere, haurren dantza kurtsoek segitu dute Ortzaizen. Maitane Eyheramonhoren laguntzarekin, 30 bat haurrek, aste guziz euskal dantzak ikasten dituzte Denen etxean. 2025eko maiatzaren 8an, Bidarten antolatutako Dantzari Ttiki ekitaldian parte hartu dute gure dantzari gazteek.

> **Lau, teiatu gainean antzerkia:**

Urte bukaera huntako sorpresa... Lau herritarrek, Arantxa Hirigoyenek idatzitako antzerkia plazaratu dute. Azken hilabeteetan, lanean ibili ondoan, bilana arras baikorra izan da taldetxoarentzat.



Lau emanaldi emanak izan dira : Abenduaren 6an Larresoron ; 7an, Liginagan ; 13an, Domintxinen eta azkena, nola ez, abenduaren 14an Ortzaizeko Goikoetxea poterian. Azken emanaldi hunek, 230 pertsona bildu ditu, antzerkilariak loriaturik atera dira, eta publikoa ere agian ! Adi egon, beste data batzuk proposatuko baitira urtarrilean.

> **Urzaizen lagunak:**

Urzaiz elkarteak bere laguntzaileak eskertu nahi lituzke. Izan ere, elkarte ttipia baldin bada ere, Urzaizek bere laguntzaile sarearengain kondatzen ahal du. Bihotzetik milesker hurbiletik ala urrunetik laguntzen gaituzuen guzietan, urtean zehar proposatuak diren ekitaldi guzietan, zuei esker ere antolatzen ahal ditugulako ! Jakin talde hau interesatu guzietan irekia dela, beraz eskukaldi bat eman nahi baduzue ez dudu gutaz hurbiltzea. Gora Urzaiz eta gora Ortzaize !

> **2026ko proiektuak:**

Urteko programazio osoa ez bada finkatua ere, jakin elkarteak segituko duela euskara eta euskal kulturaren sustatze lanetan. Dantza kurtsoek segituko dute eta kulturaldia berriz antolatzeko xedea dugu ere bai. Korrikan ere parte hartuko dugu. Gure ekitaldien berri ukanen duzue urtean zehar eta ez dudu hurbiltzea euskal kultura euskaraz gozatzeko.



ELKARTEEN HITZA

GUTARTEAN

Elkartek bere 40 urteak ospatu ditu.

Karia hortatat, meza bat emana izan da Bixintxo kaperan, elkarteko kide zenduen orroitzapenez. Ondotik, Etxeko Borda ostatuan bazkaria, besta giro batean, kantuez alaiturik segitu da.



Bi ateraldi antolatuak izan dira :

- Biarnoko Saliesen, gatzaren erakustokian eta Bellocq-eko sotoan.
- Urepelen, Amerikanoenia interpretazio zentroaren bisita eta bazkaria hango berego ostatu batean.

Urtean zehar, elgarretaratze aratsaldeak izan dira bai eta bazkariak eta, urtearen bukatzeko, Eguberriko aratsaldekoa Laia xokolaterian.



60 urtetik gorako edozein presuna, etorri gurekin ideia berriak ekartzerat eta elkartearen geroa bermatzera.

SAN MIXEL ESKOLAKO BURASOAK

Aurten, San Mixel eskolan, hurrek bidaiatu dute Euskal Herritik atera gabe. APELek gidaturik, jarduerak ikasleak gure tokiko kulturaren aberastasuna ezagutzera eraman dituzte, ohiturak, mito eta kondairak belaunaldiz belaunaldi transmitituak uztartuz.

Urteko une azpimarragarrienetakoa Sarako leizeen bisita izan da. Begiak zabal-zabalik, hurrek leku liluragarri bat aurkitu dute, historiaz eta irudimenez betea, non harriak berak ere iraganeko kontakizunak xuxurlatzen dituela iduri baitu. Irteera honek haien jakin-mina piztu du eta gela barruan eztabaida anitz sortu ditu.

Urte osoan zehar, ikasleek euskal musika tradizionalen erritmoan dantzan ikasi dute ere. Pausoz pauso, konfiantza eta plazera irabazi dituzte, azkenean oholtzara igo arte, kolorez eta bizitasunez betetako ikusgarri bat eskaintzeko. Partekatze une hori orroitzapen aipagarria izanen da haurrentzat eta haien familientzat.

Eskolan egin diren ekintzez gain, APEL San Mixelek herriko bizian duen engaiamendua segitu du, uztailako gaueko merkatuaren antolaketan parte hartuz, Ortzaizeko beste bi eskolekin batera, bihotzez eskertzen ditugunak. Arratsalde atsegin honek berriz ere bizilagunak, familiak eta bisitariak bildu ditu giro alaia eta udakoa sortuz.

Ekimen horiek guziak posible izan dira eskolako familien energiari eta inplikazioari esker, baita OGEC, Herriko etxea eta parropiaren laguntzari esker ere. Engaiamendu kolektibo horrek haurrentzat zentzuzko proiektuak biziarazten ahal ditu.

Azkenik, eskerrik beroenak Ortzaizeko eta inguruko bizilagunei, haien leialtasunagatik eta sostenguagatik. Herri-izpiritu horri



esker, APEL San Mixelek urte guzietan segitzen du haurrak laguntzen aurkikuntzaren, partekatzearen eta kulturaren bidean.

ESKOLA PUBLIKOKO BURASOAK

Ortzaize-Arrosako eskola publikoetako Ikasleen Burasoen Elkarteak (IBE) hainbat ekitaldi antolatu ditu familien diruz laguntzeko: eskola bidaiak, kultur ateraldiak edo haien haurren eskolatzeari lotuak diren bestelako ekitaldiak.

Ekintza anitz eginak izan dira 2024/2025 urtean:

- Bixkotx salmenta Arrosako eguberri merkatuan,
- txokolate salmenta Eguberritarako,
- Tartiflette/krepak eramateko salmenta,
- Gasna salmenta aitaren egunerako,
- gure lehen kantaldirako sarreraren salmenta

Ortzaiztar eta Arrosatarren inplikazio eta dohaintzarik gabe eta Herriko Etxeen dotaziorik gabe, IBEk zaila izanen luke iragan urtean gure haurrei proposatuak izan diren aktibitate ezberdinak finantzatzea, hala nola :

- eskola bidaia,
- erakasleek pentsatuak dituzten ateraldi pedagogiko anitzak,
- Ortzaizeko eskolako korlearen margotze proiektua.

Beraz, ikasleen gurasoei eta Ortzaize eta Arrosa herrietako hautetsiei eskerrak emaiten dizkiegu haien engaiamenduagatik, urtero erakasleek abiatuak dituzten proiektu pedagogiko guzietan bururatzea ahalbidetzen digulako. Herriko haurrek eskolako aktibitateetatik osoki goza dezaten, gomitatzen zaitugu IBEra (kideztza urririk) lehenbailehen izena emaitera. Zure parte-hartzea funtsezkoa da.



BORDEAUX-MONTAIGNE UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BISITA

Bigarren aldiko aurten, "Bordeaux-Montaigne" unibertsitateko 30 ikaslek (IUT Carrières sociales) beren erakasleekin bisitatu dute gure herria.

Batzuk "Hiri eta lurralde iraunkorrak" animatzaile bezala lan egiteko prestatzen dira, beste batzuk "bitartekotasun jokoaren bide" edo "ludoteka kudeaketa" ikasten ari dira.

Urtekari huntaz baliatu nahi dugu Bernadette Argain eskertzeko, 5 urtez familia frango errezebitu baititu jostagunean. Agorrietik hunat, Amélia Valbousquet herritarrak du segida segurtatzen. Ateak zabaltzen ditu asteazken eta ibiakoitz goizetan 10etatik eguerditara.



SOZIALA



- **Eguberriko opariak 80 urtez goitikakoentzat.**

Aurten ere kontseilariak banatu dituzte boltsak, gure lan herrixkako lekuko mozkinekin osatuak. Banaketa hori momentu goxo baten pasatzeko eta bi solasen egiteko parada ere da.

- **Atzoko gazteen bazkaria Etxeko-Bordan**

70 herritar hurbildu dira aurten bazkarira.

Gela ederki apaindua, zerbitzu bikaina eta bazkari gustukoa. Momentu biziki goxo bat pasatu dugu denek elgarrekin. Haien ostatuko ateak zerratu aintzin, eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiegu Edith, Laure eta Panpiri beren harrerarentzat eta beti eskaini daukuten denborarentzat. Bihotzez, arrakasta handia desiratzen dautzuegu zuen proiektu berrietan!



URRIRIK DIREN HURBILEKO ZERBITZU AINITZAK MEDIKUNTZA MAILAN LAGUNTZEKO, ZUEN AUTONOMIA BEGIRATZEKO ETA GOXOKI XAHARTZEKO ETXEAN.



- **Goxoki Etxean Lurraldeko Baliabide Zentroa laguntzeko etxean egoiten:**

Ekipo batek (erizain koordinatzaile bat, dietalari bat, ergoterapeuta bat, psikologo bat, masaja egile bat eta 4 geriatría laguntzaile) proposatzen ditu :

-ebaluazioak, aholkuak eta segipenak etxean 60 urtetik goiti. Adinetakoei edo/eta hurbileko ala profesional laguntzaileei zuzenduak dira zerbitzu horiek.

-laguntza azkartua etxean autonomia galtzen ari diren adinekoentzat

Zerbitzu horiek Eskualdeko Osagarri Zentroak diruztatzen ditu, osoki urririk dira.

Telefonoa: 06 30 10 24 99

- **Atxiki tailerrak Ortzaizen autonomia galtzeari aurre egiteko**

Tailer horiek urririk dira.

-memoria lantzeko tailerrak Florentzaenea zaharrea, asteazkenetan, 14:30tan

-psikomotrizitatea lantzeko tailerrak, Denen etxean, ortziraletan, 10:45tan

Telefonoa: 07 85 46 07 92



- **Asalee, eritasunen hobeki konprenitzeko eta egunerokoa kudeatzeko**

Mediku eta erizainen arteko elkarte da.

Osagarri Publiko zerbitzu bat da, urririk da.

Telefonoa: 07 45 55 04 94 ou 06 70 35 57 89

- **« Ene psi laguntza »**

Medikuaren agiriarekin 12 saio ordainduak dira (%60 Seguritate Sozialetik eta %40 Mutualetik).

- **Arta laguntzak «Garazi en rose» elkarteak eskainirik**

Urririk den tokiko arta sarea da, erizain batek kudeatua, edozoin minbiziarentzat, Baxe Nafarroko emazte eta gizonei zuzendua.

www.garazienrose.com. Telefonoa: 06 09 40 83 01

EZ DUDA HARREMANETAN SARTZEA BEHARRA SENDITZEN BADUZUE.

HITZA ESKOLEI

ESKOLA PUBLIKOA

Beste urtetan bezala, proiektu pedagogiko aberats ainitz izan dira, zombait bakarrik aipatuak izanen dira : hala nola musika, dantza eta urtea bukatzeko eskolako besta.

Ikasturte hau bereziki aberatsa eta hunkigarria izan da ikasleentzat. Sormenaren inguruan antolatua, bakoitzari bere talentuak erakusteko eta partekatzeko xantza eman dio.

Urte osoan zehar, haurrek kantua eta dantza landu dituzte.

Alde batetik, Euskal Herriko orkestra zuzendaritzako bi musikari eskolara etorri dira, beren musika tresnak ezagutarazteko, bereziki tronpeta eta tronboia. Haurrek, zuzenean eman musiken entzuteko parada ere izan zuten.



Bestalde, Sumente taldeko artista korsikarrak eskolara etorri ziren kontzertu baten prestatzeko.

Elgarrekin bi haur kantu tradizional landu zituzten, esperientzia ahantz ezina gure ikasleentzat.

Lan eder hori kontzertu batekin bururatu zen, kontzertuaren lehen partean kantatuz korsikar kantarien laguntzarekin.

Arratsalde goxoa izan zen, familien eta publikoaren txalo artean.

Dantzaren aldetik, gela bakotxak sorkuntza bat muntatu ahal izan du eskolako gaiari lotua.

«Haurrak dantzari» antolatua izan den ekimenean parte hartu dute eskola ainitzen aitzinean beren sorkuntzak presentatuz. Urtea bukatu da, eskolako bestarekin, historiako bost garaiak zeharkatuz dantza, kantu eta olerki batzuen bidez.

Urte hau orroitzapen ederra izanen da haur guzientzat.



SAN MIXEL ESKOLA : EKIPA BERRITUA ETA PROIEKTUETAN ABERATSA DEN URTEA

Ikasturte berri honen hastapenean, gure hezkuntza-komunitatea kontent da pertsona berri batzuk hartzeaz. Denak gure lan komunera gogoz etortzen dira, eta haurrak konfiantzaz eta adeitasunez lagundu nahi dituzte.

Ongi etorri ematen diogu gure ASEM-ari, Aize INDA, egunero txikienean ondoan arituko baita goxotasunez ; gure zerbitzu zibikoko boluntarioari, Maialen INARRA, eskolako bizitzan eta hezkuntza-proiektuan parte hartuko duena ; eta gure frantseseko irakasle berriari, Sabine BECQUET, bere gaitasun pedagogikoen taldea aberastuko baitute.

Zuzendaritzak ere aldaketa izan du, ikastetxearen hezkuntza-proiektua dinamismoz eramaten jarraitzeko, izan ere, Aurélie DE OLIVEIRA, etorri da gure eskolako zuzendari gisa, baita Garaziko Sainte-Marie eskolako zuzendari gisa ere.



2025/2026 ikasurterako, zinema, oihana eta Euskal Herriko historia izango dira ardatz nagusi San Mixel eskolan.

Horrela, azaroaren 27an, oihanari buruz klasean trimestro oso bat lanean aritu ondoren, ikasgela Kanborat joan dira. CPIEren laguntzarekin, udazkeneko naturan murgildu ahal izan ginen eta Basajaunen kondaira ezagutu genuen.

« Eskola zineman » eta « Haur eskola zineman » ibilbideekin, ikasleek urtean zehar hiru filme ikusiko dituzte, arte hori deskubritzeko eta lantzeko. Klasean zinema historioaren, bere lanbideen eta teknikaren berri ere izanen dira. Pantailan aurrean dugun jarrera ere eztabaidatuko dugu. Eta lan hau bukatzeko, ikus-entzunezko profesionalaren gidaritzapean, film laburrak egingen ditugu.

Ikasturte honetan, elebiduna den gure gure ikasgela bakarrarentzat programa polita dugu. Ttipienetatik hasi eta CM2 arteko ikasleak hartzen ditu gela hunek.



ORTZAIZEKO IKASTOLA



Urtean zehar hainbat proiektu eta ekitaldi eraman ditugu aitzina.

Maia Iribarnekin batera tailerrak egin eta bideo bat grabatu dugu haurrek ikastolan dituzten bizipenei buruz. Trukaketa aberatsa izan zen eta atera den bideoa irringarria!

Horrez gain, tinkaketa proiektu bat eraman dugu buraso eta haurren artean Céline Mirailhen laguntzarekin. Bide bazterreko murruan gure leloa idatzi dugu «Euskaraz, erein, hazi eta loratu», eta garaian egin izan zen tinkaketa bat freskatu eta beste koloretsu bat sortu dugu.

Gure ikastolan auzolana oraino indartsu dela ez da dudarik. Horren adibide, gure ikastolaren teilatuaren berritzea. Uda honetan teilatuaren parte bat berriz egin dugu burasoen artean.

Ortzaizeko Ikastolak 40 urte ospatzen ditu aurten. Buraso batek kantu bat idatzi du eta beste biek musika bat sortu. Bosgarren urteko haurrek musika estudio batean grabatu dute eta ikastolan klipa bat itzuli dugu. QRkodean bideoa ikusgai.

Bestalde besta bat antolatu genuen ekainean buraso, ikasle, irakasle eta langile ohi guziak gomitatuz ikastolaren 40 urteak ospatzeko. Goizean haurrek Arantxa Hirigoyenekin sortu antzerki bat taularatu zuten ikastolan eta ondotik bazkari eta kontzertuak izan ziren Ortzaizeko ezker paretan.

Irailean mahai-inguru bat antolatu genuen Seaskako kide ohi eta ikastolako buraso ohi batzuekin. Seaska eta Ortzaizeko ikastolaren sorrerak eta erronkak aipatu zizkiguten.

KULTURA

KULTURA EKINTZAK

Kultura mailan, aitzineko urteei segi, hainbat ekintza berri dira aurten:

- Menta liburu dendan eta Ikas argitaletxeari haurrentako euskarazko liburuak erosi ditu Herriko etxeak, herriko liburutegiaren osatzeko eta eskaintza handitzeko.
- joan den uztailaren 16an, Lak'arte antolatu dugu, Haurren parkearen ondoan: herriko eta inguruetakoa artisten obrak ezagutzeko parada izan da
- udako ilunabar horren ondotik, ilundu duelarik, Zinema kanpoan ekitaldia proposatu da, *Agur Etxebeste!* filma proiektatuz herriko plazan, frantsesezko azpi-tituluekin.



KULTURA ELKARTEEKIN ESKUZ-ESKU

2024ko abenduan, herriko elkarteei, kultura mailako diru-laguntza gehigarri bat galdegiteko aukera aurkeztu zitzairen. Kotsideratuz, herrian, bizi kulturala parte handiz elkarteek egiten dutela, eta kultura saila biziartzten dutela ekitaldiak antolatuz, izan ikusgarriak, tailerrak edo kurtsoak emanez, Herriko etxeak diru-laguntza gehigarri baten emaitza proposatu ziren.

Testuinguru horretan, bi ekitaldi lagundu dira 2025ean (eskuratu diren bi eskaera bakarrak izan dira):

- Ortzaizeko besten kariatara, Besta komiteak antolatu duen Polliki dantza taldearen ikusgarria eta Joseba Tapiaren kontzertua igandez
- Urzaiz elkarteak antolatu duen Kulturaldia urrian, zazpi hitzordu desberdin proposatuz.

PAREKATZEAK

2025ean, Ortzaizek bi parekatze proiektu burutu ditu:

- lehenik, Gipuzkoako Lezo herriarekin harremanak sortu dira, parekatzeko asmoarekin. Hau, Udalbiltzaren bidez gauzatu da. Bi herrietako hautetsi zenbait bildu ziren Lezon: hango herria bisitatu eta bi herrien arteko ezaugarri amankomunak aipatu ziren. 2026 urte hastapenean, Lezoarrak jinen dira Ortzaize bisitatzera. Pausoz pauso, helburua izanen da parekatze hori sendotzea eta herritarrak inplikatzera.
- gero, Ameriketatik galde bat heldu zaigu, Ortzaiztarrak aterpetu dituen Gardnerville hiritik parekatze baten egiteko. Segida positiboa eman diegu eta han, ekitaldi berezia egin dute honen gauzatzeko.

KULTURA PROGRAMAK BIDEAN

2025ean, bi kultura proiektu gauzatu dira eta segitzen dute:

- **Ura proiektua**

Lexantzü eta Urepeleko herriekin, programa kulturala eraman da. Ideia da bata-besteen baliabideak, sareak batzea eta eskaintza kulturala anitza eta aberatsa proposatzea barnekaldean. Karia horretara, joan den azaroaren 15ean,

Kukai dantza taldearen Gela jauziak ikusgarria gozatu ahal izan dugu ezker paretan.

Hau Urzaiz elkartearekin partaidetzan eraman da, antolaketa logistikoa eta ondotik ostatu eta jatekoaren segurtatzeko.



KULTURA

- **Geuretik Sortuak**
programa

Udalbiltzak proposatzen duen “Geuretik sortuak” programan parte-hartu dugu. Honekin, Bizkaiako idazle bat errezebitu dugu joan den agorrilean, bi astez herrian: Garazi Albizua. Bere familiarekin egon da eta horren ondorioz, sorkuntza lanetan ibili da, testu bat idatziz, Ortzaizen ikusi eta bizi izan duenetik inspiratua.



Heldu den otsailaren 5ean, ostegunarekin, 18:30tan, Mentan aurkeztuko du bere lana. Denak ongi-etorriak zizte!

Horrez gain, programa horren eginkizunetan aurreikusten da beste herri batzuetan egonaldiak egin ondoren, beste artista batzuk sortutakoa, gure herrian aurkeztea 2026an zehar.

Otsailaren 27an, ostiral astirian izanen dugu aurkezpen bat. Honen berri emanen dizuegu laster. Adi egon!

EUSKARA

KORRIKA

Korrikaren 24.edizioa iraganen da 2026ko martxoaren 19tik 29ra eta abiatuko da Atharratzetik Bilbora heltzeko. Ibilaldi definitiboa ez bada oraino aterara ere, usaian bezala Ortzaizeko Herriko etxeak kilometro bat erosiko du eta gomita luzatuko dizuegu euskararen alde lasterka egiteko.



PLAZARA KOLEKTIBOA

Arrosategiako obrekin batean, herritarrek eta hautetsiek osatu talde bat arizan da lanean euskararen inguruko xarta bat idazteko, Plazararen laguntzarekin.

Testu horren helburua da euskararen erabilera eta lekua sustatzea Arrosategian berean eta inguruko eremuetan. Talde hunek biltzen segituko du testuan diren proposamenak plantan emaitzeko.

HERRIKO BASTIMENDUAK

- Jantegi barneko pareten arraberritzea
- Jantegiko labearen eta plateren berotzeko tresnaren ordezkatzeta.
- Zango-baloi zelaiko bidekaldeko zerkoaren arraberritzea.
- Eskola publikoari kolorezko fotokopiagailu baten erostea.



BIDEAK

- Aintziko bidea eta Lasarteko bidearen arraberritzeak.
- Aintziko bidean bazterren arraberritzea eta euriko uren sarea berritzea.

SAREAK

- Ahaize auzoko sareen lurperatze lanen bururatzea.
- Argitze publikoa LED-era pasatzea Arrosako zubitik Gaharduraino.
- Elekrika eta telekomunikazio sareen luzatzea Arrosategia hornitzeko.
- Elekrika eta telekomunikazio sareen luzatzea ur-araztegirateko ponparen hornitzeko.



HERRIKO BASTIMENDUAK

- Ahaizemendiko plazaren arraberritzea.
- Ezker pareta: hegatz bazterren ordezkatzea eta tindatzea eta ateen tindatzea.
- Aisialdi guneko eta jantegiko sartzearen tindaketa.
- Herriko etxe zaharraren gaineko bigarren bizitokiaren arraberritzea.
- Herri erdiko seinaleetika emaita.

BIDEAK

- Basaburuko bidea eta Xerrendako bidea berriz eginak izanen dira osoki edo partez.
- Barberaren bordako ondoko bidearen largatzea.
- Herri erdiko eskolen autobus gunearen normetan emaita.

SAREAK

- Gaharduko posta hornitzen duen tentsio azkarreko linea lurperatu + lan herrixkako hornitzea segurtatu.
- Sare elektrikoaren luzatzea Arrosategiko auto elektriko kargatzaileen hornitzeko.
- Herri erdiko ur-araztegiaren lekuz aldatzea.

NATURA 2000

2024. urtearen bukaeran, Natura 2000 gunearen kudeaketa plana —DOCOB ezaguna— ofizialki onartu zen Baigura mendigunerako. Geroztik, gunea bere animazio fasean sartu da osoki: kudeaketa planaren lehen ekintzak plantan jartzen ari dira, helburu argi batekin: giza aktibitate eta Baigura hain aberatsa egiten duten ingurune naturalak eta espezieak kontserbatzea uztartzea.

2025: Ekintza zehatzen urtea**Laborantza arloa.**

138 hektarea okupatzen dituzten 22 laborariek laborantza-ingurumen eta klima neurriak (LIKN) hartzeko konpromisoa hartu dute mendiguneko habitat eta espezieen praktiken babesteko: larre zabalen kudeaketa, iratze uzta...

271 hektarea okupatzen dituzten bost bortuko lurren kudeatzailek ere bat egin dute dinamika honetan.

Tokiko mendiko su kontrolatuen batzordeetan parte-hartze aktiboa gunearen garrantzi ekologikoa defendatzeko.

Sentsibilizazio arloa

Bi ekitaldi publiko eskaini ziren uztailean, Baigura aisialdi zentrotik abiatu zirenak.

Informazio bilkurak antolatu ziren aisialdi zentroko zerbitzu hornitzaileentzat eta kirol ekitaldien antolatzaileentzat.

Natura 2000 erakusketa bat egin zen, Baigurari buruzko atal bat sartuz.

Eremu horretako 3.zikloko ikasleentzat hezkuntza programa bat prestatzen ari da.

Ezagutzen hobetzea

Kontserbatorio botanikoei interes komunitarioko habitat berri baten presentzia baieztatu dute: iparraldeko mazelako pagadia.

2026: zabaltzen segitzen

2026. urtea etapa berri bat izanen da, azkartzen segituko duen animazioari esker.

Ahaleginak hiru gai nagusitan zentratuko dira bereziki: oihanak, larreak eta gau ainarak, gure ezagutza, habitat eta espezie ohargarri hauen zaintzeko ekintzak gehiago zehazteko.

DOCOB honen xehetasunak EAEko Aglomerazio Komunitatearen webgunean atxemanen dituzu.



BAIGURA MENDI ELKARTEA

Baigura Mendi Elkartea – Baigura mendiguneko larre-eremuetako kudeatzaileen elkarte.

2017az geroztik, elkarte honek Baigura mendiguneko alhaguneen kudeatzaileak, Artzain Lur Elkartek (ALE) eta herriko etxeak biltzen ditu, mendigunean diren baliabide eta jardueren kudeaketa iraunkor eta orekatua bermatzeko helburuarekin. Horretarako, artzaintzari eta hari lotu praktiken segipena zaintzen du, mendia bizirik eta untsa zaindua izaiteko berme gisa.


Baigura mendigunearen barne diren 7 herriko etxeen trukaketa eta elkarrizketa-gune egiazkoa da elkarte hau, eta lan-dinamika kolektibo bat sustatzea ahalbidetu du. Dinamika hori hainbat proiekturen bidez gauzatu da, besteak beste: artaldeak zaintzeko artzain baten kontratatze kolektiboa, mendiguneko erabiltzaileekin hitzarmenak sinatzea, eta artzain lanen programak garatzea, besteak beste.

Berrikiago, mendigunearen kudeaketa kolektibo hori, herriko etxeen mugak gaindituz, are gehiago indartu da artzaintza-erabileraren mantentze eta sendotzera bideratua den proiektu baten bidez. Proiektu horrek, bereziki 2025ean, ondoko ekintzak ekarri ditu:

- Baigura mendiguneko artzaintza-erabileraren egoeraren eguneraketa: kabala kopurua, artaldeak kokapena, mantentze osagarriko praktikak, etab.
- Hazleek dituzten artzaingoa hobetzeko beharren zerrenda osoa egitea, ur-baliabidearen gaiari garrantzi berezia emanez
- Hazle transhumanteekin lankidetzan landu araudi pastoralaren proiektua
- Mendiko suen antolaketa partekatua, Baigura mendiguneko suen Tokiko Batzorde bat sortuz: mendiguneko 7 herriko etxeetako mendiko suen arduradun guztiek eta erabiltzaile diren hazleek parte hartu dute desafio eta antolaketa partekatzeko gune honetan, usaiako herriko etxeetako bilkuretan parte hartzeko ordez.

2026ari begira, Baigura mendiguneko hautetsiek, "Cellule Pastorale 64" egituraren laguntzarekin, Baigura Mendi Elkartearen baitan lan kolektibo hori segitu nahi dute, artzaintzaren arloan garatu behar diren proiektuei buruzko ibilbide-orria osatzeko. Dokumentu hori, Baigurako proiektu egituratzaileak eramateko arduren partekatzea eta horiek gauzatzeko behar diren baliabide ekonomikoen bateratzea, aztertzeko oinarri izanen da.

Azkenik, mendigune mailako lan partekatu hunek bere koherentzia osoa atxemaiten du Baigura mendiguneko 2024 hondarrean onartu Natura 2000 helburuen agiriarekin, eta 2025eko primaderatik aitzina, horri lotu dinamizazioaren abiatzearekin. Etapa berri horiek Baigura mendigunean diren desafioen kudeaketa partekatu bati buruz aitzina egiteko beharra indartzen dute.





Garapen iraunkorreko lan-taldea aurten behin bakarrik bildu da. Pixkanaka, hautetsiez gain beste pertsona batzuei ere ireki zaie, eta gaur egun 14 kide gira.

Aipatu diren gaiak ondoko hauek dira:

- **Landatze proiektuak.**

Landaketak bururatuak dira eta segipen-fasean sartu dira. Uda aitzin egin dugun behaketa biziraupen-tasa ona zela ikusi ginuen; aurten beste behako bat emana izanen zaie, zuhaitzen osasun-egoeraren irudi zehatzagoa emanen duena.

Informazio-panelak prestatzen ari dira, eta horietan agertuko diren testuak lan-taldean adostuak izan dira.

Parkeak uda partean landu gabe utzi dira. Belarrak eihartu dira eta ez dute urik kontsumitu; horrek lehia murriztu du eta, ondorioz, zuhaitzen hazkundera lehenetsi da.

- **Mendekoste asteleheneko goiza :**

Goiz horretan Derker-en inguruko eta Sabioko deskarga basak garbitu dira. Ondotik parte hartzaileek bazkari goxo bat partekatu dute.

- **Bildu gabeko hondakinen segipenari eta ebaluazioari buruzko hausnarketa:**

CITEO erakundea da Bil ta Garbiko bilketa-guneetan jasotzen ez diren hondakinen segipena eta ebaluazioa egiteko ardura duen organismoa. Gaur egun eta etorkizunean bide horretan eginen diren ekintzen arabera, herriko etxeari diru-laguntza bat eskainiko dio.

Hausnarketa-ildo frango aipatu dira: jantokiko hondakin organikoak, parkeetako eta ezker-paretako zikinuntziak, erreketako hondakinak, bideetan eta plazan agertzen direnak, hilerrietako lore zimelduak, errota zaharrak, obra-hondakinak...

Zer gertatzen da hondakin horiekin? Biltze-guneak ainitzetan gainezka dira.

- **Trabagailuen biltze goiza:**

Bi goiz proposatuak izan dira aurten trabagailuen kentzeko: otsailaren 2a eta azaroaren 29a. 15 suk proposamen hori erabili dute bazterren husteko.

- **Beste:**

ITURRITIK elkarteak Errobi errekaen garbitze goizak antolatzen ditu, hilabeteko lehen igande goiz guziz.



TXIK TXAK: ESKAERA BIDEZKO GARRAIOA

NOLA EGIN BEHAR DA?

Informazio gehiago: txiktxak.fr



BERRIA

Nire bidaia erreserbatzen dut:

Txiktxak.fr webgunean, dedikatutako orrialdean, « nire bidaia erreserbatu » atalean klik egiten dut

☎ Telefonoz 05 47 75 76 64 : Astelehenetik larunbatera: 07:00etatik 20:00etara / Igandetan eta besta egunetan (Maiatzaren 1az kanpo): 09:00 - 12:30 eta 14:00 - 17:30.

Baieztapen bat eskuratzen dut:

Abiatu baino 2 oren lehenago, SMS batek berretsiko dit nire ibilgailuaren pasatzeko tenore zuzena.

Hartze gunera joaten naiz:

10 minuto lehenago heltzen naiz bertara. Kasu: idariak ez du goaitatuko berantean baldin bazara.

Nire erreserbazioa aldatu edo ezeztatatu behar badut?

☎ ☎ Telefonoz edo webgunean

Ibilgailua dator:

Nire garraio-titulua baliozkotzen dut, nire lekuan jarri eta nire ibilbideaz baliatzen naiz helmugaraino.

JAKITEKOA!

Ibilbidea eta abiatze-tenorea, erreserbatzeen arabera egokituak dira, bidaiak multzokatzeko.

Gibelerako ibilbidea egin nahi badut, haratekoaren batean erreserbatzen dut.

TENOREAK

Astelehenetik larunbatera:

07:30etik 19:00etara

(19:30a arte ondoko herrietan: Basusarri, Arrangoltze, Ahetze, Arbona, Milafranga, Mugerre, Biriatu eta Urruñia)

JAKITEKO ON



Ibilgailuak Mugikortasun urriko pertsoneri egokituak zaizkie

ZEIN PREZIO TAN DA?

Eskaera Bidezko Garraioa, autobusaren ber prezioan da!

1,30€ bidaia

Barnean salduak diren tituluak

- SMS bidaia 1, EBG igorri 93064ra

- Bidaia 1 txartela, sos idorrez bakarrik (gehienik 20€ko billetez)

Zure abonamenduan sartua da

Ohituki bidaiatzen badut?

Abonamenduak eta noizbehinkako garraio-tituluak deskubritzen ditut txiktxak.fr webgunean.

GALDERA BAT? INFORMAZIO BAT?

☎ 05 47 75 76 64

Astelehenetik larunbatera, 07:00etatik 20:00etara

Igandetan eta besta egunetan (Maiatzaren 1az kanpo): 09:00 - 12:30 eta 10:00 - 17:30

TXIK TXAK nire xerka dator nire hautuzko helbiderat, zerbitzatuak diren herrietar

Eta nire herritik proposatua den uzte-gune baterat eramaten nau

Abiatu baino 1 oren lehenago erreserba dezaket edo nire bidaia hilabete 1 baino lehenagotik planifika ditzaket (eskuragarritasunaren arabera).

HERRIKO POSTA AGENTZIA

- Otsailetik aitzina herriko posta agentzia Arrosategiara joanen da. Gaur duzuen zerbitzu bera atxemanen duzue.
- Liburutegia aldiz usaiako lekuan egonen da eta idekitze tenoreer buruzko informazioa laster zabalduko zaizue.



LEIZOR ASIATIKOAK

- Herriko etxeak segitzen du herritarrei laguntza eskaintzen leizor asiatikoei buru egiteko. 2024an 7 kafira suntsiarazi ditugu eta 2025ean, 13.
- Berdin berdina segituko dugu 2026an.
- Leizor kafira batzuk ikusten badituzue ez duda herriko etxera deitza.



AGENDA:

“Choeurs et cuivres, échos sacrés”: **Euskal herriko orkestra sinfonikoa** Ortzaizeko elizan ariko da 2026eko maiatzaren 29an, ostiral arratsez 8tan. Informazio gehiago eta txartelak erosgai: <https://www.ospb.eus/> gunean.



INFO PRAKTIKOAK

- Trabagarrien bilketa egun bat antolatua da 2026ko otsailaren 14an. Zerbitzu horren beharra baduzue, harremanetan sar zaitetze herriko etxearekin.
- 2026ko lehen trimestroan herriko webgunea elbarrituentzat egokitua izanen da. Ahalmen urriko jende orok izanen du manera konektatzeko.

Herriko etxeko tenoreak:

Astelehen-Astearte-Ostegun-Ostiral: 13:30- 18:00

Asteazken: 9:00-12:00

 idazkaritza@ortzaize.eus  05.59.37.74.62

Herriko posta agentzia:

Asteartetik ibiakoitza: 9:00-12:00  05.59.37.71.71

Webgunea:



Baigorriko hondakintegia:

-astearte eta ibiakoitza:

9:00-12:00; 14:00-18:00

-ostegun: 14:00 - 18:00



Donazarreko hondakintegia:

-astelehen: 14:00 - 18:00

-asteazken, ostiral eta larunbat:

9:00-12:00; 14:00-18:00



Ur deipea :
0637821167



EDF deipea:
0972675064

ARROSATEGIAKO OBREN ARGAZKI ZENBAIT



ARROSATEGIAKO OBREN ARGAZKI ZENBAIT

ARROSATEGIAKO OBREN ARGAZKI ZENBAIT



ARROSATEGIAKO OBREN ARGAZKI ZENBAIT